AMETS MENDIZALEA

MADDI ETXEBERRIA LOPETEGI
Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailak 2. saria
Lizarrako Lizarra Ikastola

Sekula ez dut ahaztuko bart gauean izan dudan ametsa.

Ez, sekula ez. Ametsean aspertzen ez nintzelako. Eta ni aspertzen naizenean sekulakoak egiteko gauza naizelako. Adibidez (bi adibide):

1. Leiho azpitik pasatzen den edonori (gehienetan amona xahar edo langile despistaturen bat) nire amonaren loreen lorontziren bat (lasai, amona ez da konturatuko) bota.

2. Nire izebaren eta osabaren arropak elkarrekin trukatu (nola da posible ez konturatzea?).

Beno, adibide horiek ikusi ondoren, pertsona argia zarenez (hala uste dut), ikasi izango duzu ni aspertuta ez edukitzea komenigarria dela. Beno, hasiko naiz ba ametsa kontatzen!

<<<Toloño mendikatea, besteak bezalako goiz fresko bat. Ekipatutako jendea maldan gora, eta haien artean ni. Mendizale guztiak elkarri animoak ematen: ”aupa!, gutxi falta da!”, ”goian txupito bat hartuko dugu!”... etab.

Ni naiz hitz egiten ez duen bakarra. ”Zergatik etorriko nintzen mendira?”, pentsatzen nuen. ”Hirian hemen baino hobeto pasatzen dut”.

Bat-batean, aita etorri zait eta esan dit:

–Ez iezadazu esan aspertuta zaudela. Horretarako ez zaitut ekarri, egun santu guztia muturtuta eta ezer esan gabe pasatzeko.

–Ba modu ederra ni ez aspertzeko.

–Saia zaitez egunak ahal duzun modu hoberenean pasatzen.

–Baina nola pasatuko dut nik ondo egun bat baloia ekartzen utzi ez badidazu?

–...

Baina elkarrizketa bukatu dugu, aitaren lagun bat etorri baita:

–Basoa erretzen ari da! Eta haizea gure aldera bideratzen ari da sua! Azkar!

Eta aitaren lagun guztiak, aita eta ni korrika hasi gara, baina norbaitek esan du:

–Lainoa! Ez dut ezer ikusten!

Eta konturatu gabe, lainoan sartzen hasi gara.

–Ba hoberena hemen gelditzea izango da lainoa desagertu arte– esan du nire aitaren lagunak– gera zaitezte zaudeten lekuan!

–Eta sua?

–Egia da... ! Aaaaa! Hortxe! Sua!

Egia zen: hantxe bertan zegoen sua, argi gorri-laranja bat ezer ikusten uzten ez zuena. Alde batean bakarrik ez, aurrean eta atzean, eta eskuinean eta ezkerrean. Inguraturik geunden.

–Itxi begiak! Horrela gutxiago sufrituko dugu! – esan zuen batek, eta denek itxi zituzten begiak nik izan ezik. Eta orduan ikusi nuena ez zen batere polita izan: han zegoen sua, ia gure gainean, eta suaren atzean mendia, mendia erreta. Beltz-beltz zegoen, eta zuhaitzak okertuak, beltzak eta sugarretan: infernuko mendia zirudien.

Bat-batean sua azkartu egin zen, eta gure gainera zetorrenean, inoiz ahaztuko ez dudan gauza gertatu zen. Haizeak, sua lagundu ordez, ematen zuen hobeto pentsatu zuela: eraman egin gintuen airean gora.

Gizonak harriturik, pozik eta sinetsi ezinik ikusten ari ziren hura. Oraindik bederatzi orduko bidea genuenez, kanpin-denda jarri, eta suaren argitan (baina su jatorra betiere) lo geratu ginen, saltxitxak jan eta gero. Hurrengo goizean esnatu ginenean (baina ni benetan lotan, ametsa baitzen) esan nuen lehenengo gauza izan zen:

–Ez naiz aspertu! Iupiiiiiiiii!>>>

Eta hor bukatu da nire ametsa. Amak esnatu nauenean. Eta zuk badakizu, argia zarenez (edo hori uste dut), ez dela komenigarria ni aspertuta izatea. Eta zure mesedetan esaten dut.